



tako jaietara joateko», nabarmendu du. Herri batzuetako jaietan hiru autobus ere jartzen dituztela azaldu du. Agurain, Kanpezu eta Añanako jaiak, esaterako, oso arrakastatsuak dira.

Dena den, noski, jende gehien mugitzen duten jaiak

Gasteizkoak dira inolako zailantzarik gabe. Perezek azaldu duenez, pasa den urtean 800 gaztek hartu zuten Jaibus Vitala Arabako hiriburura joateko Andre Maria Zuriaren jaietan. Abuztuaren 4an hamabost autobus jarri zituzten Arabako leku ezberdinetatik. Aurten

ere antzeko datuak errepikatzea espero dute, izan ere, Zeledon abuztuaren lehenengo asteburuan jaitsiko da San Migeleko dorretik. Halaber, aurtengoan Gasteizko bizilagunek ere hartu ahal izango dute Jaibus Vitala Murgia, Agurain eta Kanpezuko jaietara joateko.

Jaibus Vital zerbitzuak Arabako jaietara joateko aukera segurua eskaintzen die gazteei.
VITAL FUNDAZIOA

Hilabete honetako ibilbideei dagokionez, gaur autobusa Agurainetik Ozetara joango da, eta, datorren astean, Guardiako jaietara hurbilduko ditu Arabako Errioxako gazteak. Hilak 30ean, Dulantzi eta Aguraingo bizilagunek erabili ahal izango dute Araiara joateko.

In(justizia)

**Miren Azkarate
Badiola**

Euskal herritarren edo behintzat bertako sektore baten elkartasun eta duintasun maila handia dela ondo jakin dut betidanik. Bidaie-tarako gidari bat? Hortxe hamaika boluntario. Dirua behar duzula? Ahal dudana emango dizut eta bestea eskatuko dugu edo antolatuko dugu zerbait lortzeko. Kartelak pegatu? Goazen. Bazkari bat antolatu nahi dugula? Ni prest zerbitzatzen. Eta ez bakarrik gatazkaren inguruko borroketan, berdin nazioarteko arazoe-tan, ekologisten deialdietan... Azken finean, behar ezberdinen aurrean laguntza

eman dugun herri bat gara (berriz diot: sektore bat bederen).

Berriz erakutsi dugu "Altsasuko auzia" bezala ezaguna egin den kasuarekin. Espainiako Erreinuak berriz ere erakutsi digu -azkenaldian Espainiako hainbat lekutan ohartzen ari dira hemen aspaldi genekiena- guretzako justizia ez dela existitzen: liskar batengatik gazte batzuei 13 urteko espetxe zigorra. Baina horretaz dena edo asko esana dagoenez, nik gaurkoan horren aurrean emandako erantzuna azpimarratu nahiko nuke. Hasiera-hasieratik gazte hauen gurasoek

egin dutena, Altsasuko herritarrek egingakoa eta ondoren Euskal Herri osoaren erantzuna eta baita hemendik kanpo erakutsitakoa, horiek ez badira elkartasuna eta duintasuna...

Gaur berriro erakutsiko dugu Iruñeko kaleak beteaz. In(justiziaren) aurrean oihu egingo dugu: «Altsasukoak aske!». Ez dugu justiziarik lortuko, euskaldunentzat ez baitago Espainiako Erreinuak, baina harro gaude garenaz eta gazte hauei, haien gurasoei, Altsasuko herriari eta edozeini erakutsiko diegu ez daudela bakarrik. •